

## XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

### 201

*AGINDUA, 2020ko abenduaren 17koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Kontratazio Mahaia eratzen duena.*

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretua indarrean sartu ondoren, beharrezkoa da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako kontratazio-mahaia eratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Ondorioz, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak txostena egin ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUGU:

1. artikulua.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publikatedunetan. Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu mahai horrek, eta kide hauek izango ditu:

a) Lehendakaria: Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketako Arloko arduraduna, bai eta aholkulari juridiko bat ere, biak Zerbitzu Zuzendaritzakoak, bata zein bestea izango dira kontratazio-mahaiko lehendakari, eta elkarren ordezkari izango dira kargua hutsik dagoenean, kanpoan denean, gaixorik dagoenean edo beste arrazoiren bat dagoenean.

b) Kontratazio-organoak izendatutako kide bat, aholkularitza teknikoa emango diona.

c) Idazkaria-Bokala-Aholkulari juridikoa: Zerbitzu Zuzendaritzako kontratazio-arduraduna. Aholkulari juridikoaren eta mahaiko idazkariaren eginkizunak beteko ditu, eta hitza eta botoa izango ditu. Lanpostu hori hutsik badago, titularra ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuko teknikari batek ordezkari du.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat, bulego horren titularrak izendatua.

e) Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzaren ordezkari bat, IKT ondasun eta azpiegitura teknologikoei eta zerbitzuei buruzko espedienteetan bakarrik. Titularrak proposatuko du, eta kontratazio-organoak izendatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan aurreikusitako kasuetan.

f) Aukeran, eta kontratazio-organoak eskatuta, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari bat, haren titularrak proposatua eta kontratazio-organoak izendatua.

2. artikulua.— Kideen osaera eta identifikazioa kontratu bakoitzaren administrazio-klausula partikularren agirietan jasoko da, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

3. artikulua.— Aurreko xedapenen arabera osatutako kontratazio-mahaiak eskumena izango du, halaber, kide anitzeko organo horien esku-hartzea nahitaezkoa izan ez arren, dagokion kontratazio-organoak hala erabakitzen duen esleipen-prozeduretan esku hartzeko.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Egin beharreko kontratuaren ezaugarrien arabera, kontratazio-organoak aukera izango du agindu honen bidez modu iraunkorrean eratutako kontratazio-mahaiaren laguntza izateko, edo, bestela, mahai horretako kideak berariaz izendatu ahal izango ditu kontratu bakoitza esleitzeko; azken kasu horretan, baldintza hau bete beharko da: kideen osaera eta identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian jaso beharko dira, eta kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratu.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 2017ko apirilaren 6ko Agindua, Ogasun eta Ekonomiako eta Ingu-rumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuena, Ingu-rumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Kontratazio Mahaia eratzen duena.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 17a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,  
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.